PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Elkarteko Hobia

Elkarteko Hobia
Berriobeitiko udalerrian dagoen
Elkarteko hilerrian dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Berriobeiti non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Errepublikako gobernuko pertsonak
espetxeratu zituzten
eta baita gerra epaiketetan zigortutako pertsonak ere.

San Kristobal Gotorlekuan
egon ziren presoen bizi baldintzak
oso gogorrak ziren.
Gose handia pasatzen zuten,
hotz eta hezetasun asko egiten zuen

eta parasito asko zeuden,
adibidez zorriak.
Horregatik preso asko
tuberkulosi izeneko gaixotasun batengatik hil ziren.

1936 eta 1941. urteen artean frankistek
preso hauek Ezkaba mendiaren inguruan dauden
12 herrietako hilerrietan lurperatu zituzten.

2009. urtean
Aranzadi Zientzia Elkarteak
Elkarteko hilerriko ikerketa bat egin zuen
frankistek bertan lurperatu zituzten
presoen hilobiak non zeuden jakiteko.

2010. urtean
Elkarteko Kontzejuak
eta Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarketak
omenaldi bat egin zien
bertan lurperatuta zeuden
gotorlekuko 17 presoi.

2021. urtean Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
Memoriaren Nafarroako Institutuak
eta Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarteak
hilerriaren beste ikerketa bat egin zuten.
Hilerrian lurperatutako
beste 5 pertsonen gorpuzkiak
desobiratu zituzten.
Oraindik ez dakite
gorpuzkiak norenak diren.

Hemen Elkarteko hobiko
argazkia ikus dezakezu:

